

Ibaizabal eskubaloitako taldeko jokalariek Euskadiko ligan jokatzeko dute helburu

Kirola • Ibaizabal eskubaloitako taldea historia egiten dabil. Klubaren historian lehenengoz, talde bi daude senior mailan jokatzeko. Talde urdineko kapitainak azaldu duenez, talde biek helburu argia dute: datorren denboraldian, taldeetako batek behintzat Euskadiko ligan jokatzeko. "Helburua bete daiteke eta hori lortzeko borrokatuko gara", azaldu du kapitainak. • 20



Proiektu urbanistiko berria definituko dute

Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak eszenatoki berri bat zabaldu dute trenbide zaharraren orubean eraikitzeak ziren proiektu urbanistikoak birpentsatzeko. Akordiorako oinarria lortuta, "proiektu bideragarri bat" definituko dute azken hamarkadetan hainbeste korapilaturiko proiektu urbanistikoari irtenbide bat emateko. Alde biek elkarregaz definituko dituzte eraikinen tipologia, kokapena eta altuera. • 2-3



Berrizko Melchor Gabilondo enpresako langileak protestan, euren egoera salatzen

Beharginak ERTEan eta enpresa hartzekodunen konkurtsoan daude



Berrizko Melchor Gabilondo (MEGA) enpresako langileak mobilizazioak egiten dabilta azarotik. Hitzarmen berri bat sinatzeko hasi ziren mobilizatzen, eta orain elkarretaratzeak egiten dabilta euren egoera salatzen. Une honetan langileak ERTEan daude eta enpresa hartzekodunen konkurtsoan dago. Langileek martxoaren 31ra arte dute ERTEa. • 8



Durangoko trenbide zaharraren orubean hasieran egitekoak ziren proiektuaren infografía.

Bost etxebizitza dorreei alternatiba

Durangoko Udalak eta Jaurlaritzak akordiorako oinarri bat adostu dute trenbide zaharraren orubean "proiektu bideragarri bat" egiteko. Heren bat murriztuko dute orubeko eraikigarritasuna

DURANGO • EKAITZ HERRERA

16 urte joan eta gero, balazta. 2005ean eraikitzen hasitako proiektu urbanistikoari, galga. Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak eszenatoki berri bat zabaldu dute trenbide zaharraren orubean eraikitzekoak ziren proiektu urbanistikoak birpentsatzeko, eta haren lekuan "proiektu bideragarri bat" egiteko. Alde biek akordiorako oinarri bat adostu dute, eta itunagaz norabide berri bat ezarri dute azken urteotan hainbeste katramilatutako proiektuan.

Akordiorako oinarriak utzi duen ondorioz esanguratsuen honako hau da: eremuaren eraikigarritasuna heren bat murriztuko dutela, eta, beraz, alternatiba bat sortuko dutela 18 solairuko bost dorreen aurrean. Alde biek elkarregaz definitu gura dituzte "eraikinen tipologia, kokapena eta altuera". Baina bada gehiago. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, uko egingo dio lurpeko merkataritza-galeriaren bigarren fasea

eraikitzeari. Baita lurperaturiko eremuan ekipamenduetarako gune bat eraikitze asmoa ere. Durangoko Udalak, trukean, ekipamenduetarako lursail bat utziko dio Eguzkitzan, etorkizuneko industrialdea garatzen denerako. Era berean, San Agustingo ospitale zaharra eta Pinondo Etxea utziko dizkio Jaurlaritzari, honek eraikinak berriztu eta premia-egoeran dauden kolektiboentzat bizitokiak eraiki ditzan. Bestalde, alde biek adostu dute trenbide zaharraren trazadura osoa Durangoko Udalaren jabetzakoa izango dela aurrerantzean.

Alde biak bat etorri dira akordiorako oinarriaren balioa azpimarratzerakoan. Alde batetik, libre geratu diren eremuak urbanizatzeko proiektua udalaren "nahietara" aldatu delako, eta, bestetik, Jaurlaritzak herritarren borondateari erantzuteko asmoa agertu duelako, eta "egindako inbertsioaren ondoren herritarren ondare-eskubideak kaltetu ez dituelako".

Erreakzio sorta

Durangoko EAJk ohar baten birtartez baloratu du akordiorako oinarria. Jeltzaleen esanetan, adosturikoak "ez dio etorkizunari begiratzen udalerraren beharriari eta zerbitzuei dagokienez". Akordiorako oinarria "atsekabez" hartu dute, eta "galera handia" iruditzen zaie hasieran aurreikusitako ekipamendu-erakinari uko egitea. Durangoko gobernu taldeak, ostera, akordiorako oinarriaren balantze positiboa egin zuen astelehenean. Ima Garrastatxu alkatearen berbetan, adosturikoak "oso berri ona" da. Alkateak esan du "hile luzeko negoziazioak" izan direla, eta azpimarratu du negoziaketari eskerrak "hainbat hesi" apurtu dela arlo politikoan: "Akordiorako oinarriak ustez apurtu ezinak ziren muga batzuk apurtzea ekarri du, oztopo politikoaren gainetik". Izan ere, hiru alderdiren eskutik heldu da akordioa. Gobernu taldekoak diren EH Bildu eta Herriaren

Eskubidea-Podemos tandemaren eskutik, eta Eusko Jaurlaritzaren Garraio Saila kudeatzeaz arduratzen den PSE-EEren eskutik. Alde horretatik, Garrastatxuk EAJri egin dio kritika. "Oposizio alderdi nagusiari entzun izan diogu PERI Trenbidea proiektu

Datorren astean parte hartze prozesu bat hasiko dute hemendik aurrerakoak erabakitzen joateko

tua mugiezina zela esaten, eta egin ezean durangarrok 266 milioi euroko kalte-ordaina eman beharko genuela. Horrez gainera, herri galdeketa abstentziora deitu zuen". Horren aurrean, gobernu taldeak emandako berba "bete" egin duela eta "boikotaren aurrean alternatibak" sortu dituela iritzi dio Garrastatxu alkateak.

Jesica Ruiz bozeramaile sozialistak adierazi du PSE-EEK "ondo" ikusten duela akordiorako oinarria. "Eman diren pausoak eman beharrek" zirela iritzi dio. Baina adostu denari gabeziak ere ikusi dizkio: "PERIaren lurzoruan etxebizitza gutxiago egingo den arren, galtzen duguna oso handia da. Ondare galera bat gertatzen da. Babes Ofizialeko Etxebizitza guztiak emango dizkiogu Jaurlaritzari. Eta Pinondo Etxea eta San Agustín ospitalea galtzen ditugu", adierazi du sozialisten bozeramaileak.

Aurrera begira, zer?

Herriaren Eskubideko Jorge Varela zinegotziak argitu du datorren astean parte hartze prozesu bat hasiko dutela herritarrekin. Akordiorako oinarriak eskainitako markoaren barruan, "akordioa zelan hobetu" eta "bideragarriago zelan egin" landuko dute. Horretarako, askotariko saioak antolatuko dituzte, hainbat espaziotan. "Aztertuko dugu egoera juridikoa zelan dagoen eta aurrera begirako aukerak zeintzuk diren", esan du Varelak.

Datozen egunetan emango dituzte prozesu parte hartzaileari buruzko xehetasun eta argibide gehiago.

Gakoak

1

%36

Eraikigarritasun gutxiago.

Orubearen eraikigarritasuna heren bat murriztuko dute, eraiki beharreko eraikinen tipologia, kokapena eta altuera Durangoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean definituta.

2

Merkataritza-gune gehiagorik ez

Jaurlaritzak uko egin dio.

Lurpean merkataritza-galeriaren bigarren fasea egiteko asmoa zegoen arren, proiektua ez da garatuko. Jaurlaritzak uko egin dio.

3

Eguzkitza

Lursail bat han, ekipamenduetarako.

Udalak Eguzkitzako lursail bat utziko dio Jaurlaritzari, honek ekipamenduetarako gune bat ipini dezan industrialdea garatutakoan.

4

Pinondo eta San Agustín

Etxeak, zaurgarrientzat.

Udalak San Agustingo ospitale zaharra eta Pinondo Etxea utziko dizkio Jaurlaritzari, honek eraikinak birgaitu eta premia-egoeran dauden kolektiboentzat bizitokiak eraiki ditzan.

5

Trazadura

Durangarren eskuetara.

Eusko Jaurlaritzak eta Durangoko Udalak erabaki dute trenbide zaharren trazadura osoa Durangoko Udalaren jabetzakoa izango dela aurrerantzean, eta udalak izango duela berau urbanizatzeko ardura.

Erreakzioak

Akordiorako oinarriak ez dio etorkizunari begiratzen udalerraren beharriari eta zerbitzuei dagokienez

MIREIA ELKOROIRIBE (EAJ)

EAJren aldetik entzun izan dugu PERI mugiezina zela eta egin ezean 266 milioi euroko kalte-ordaina eman beharko zela

IMA GARRASTATXU (EH BILDU)

Datorren astean zabalduko den parte hartze prozesuan egoera juridikoa eta aurrera begirako aukerak zeintzuk diren aztertuko dugu

JORGE VARELA (HERRIAREN ESKUBIDEA)

Etxe gutxiago egingo den arren, galtzen dugun ondarea handia da. San Agustín ospitalea eta Pinondo Etxea galtzen ditugu

JESICA RUIZ (PSE-EE)

Kronologia iruditan

Durango operazioa. Horixe izan zen Durangon trena lurperatu eta gero eraikitzea aurrekusi zutena: bost etxe dorre, Zaha Hadiden eraikina, galeria komertzialak... Urteak joan eta etorri, egitasmoa piezarik pieza bertan behera geratu da

- 1) Juan José Ziarrusta Durangoko alkate zela 'Durango Operazioa'-ren lehenengo harria ipini zuten. Ibarretxe lehendakaria eta Alvaro Amann Garraio sailburua bertan izan ziren.
- 2) Trena lurperatu eta gero, etxe dorreak eraikitzea aurrekusi zuten.
- 3) Erabaki plataformak mobilizazioei ekin zien bost etxe dorreen proiektuaren inguruan herri galdeketa egitea eskatzeko.
- 4) 2021eko maiatzean egin zuten galdeketa.



1



2



3



4



HEMENDIK

ELORRIORA

BETI GERTU!

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, behea 48215, lurreta
construccion@zarateyelexpe.com



Joan zen martitzeneko osoko bilkuran ateratako argazkia.

"Espazio publikoen berreskurapena eta politika sozialak", Durangoko aurrekontuen ardatzak

Udal gobernu taldeak PSE-EEren 11 emendakin sartu ditu 2022ko udal aurrekontuetan. Trukean, alderdi sozialista abstenitu egin da. EAJk kontrako botoa eman du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko udalbatzak 2022ko udal aurrekontuak onartu zituen martitzenean. Iker Urkiza EH Bilduko zinegotziak "berreskurapenera" begirako aurrekontuak direla esan zuen osoko bilkuran, "espazio publikoen inbertsioetan, politika sozialean eta trantsizio ekologikoan" ardatzuta. Aurrekontuak EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen botoekin onartu dituzte, baina alde aurretik PSE-EEgaz akordioa itxita. Izan ere, alderdi sozialistak aurkezturiko 15 emendakinetatik 11 aurrekontuetan jasota geratu dira, eta Jessica Ruiz buru duen alderdiak abstentziora jo du, trukean. PSE-EEko zinegotziak bilkuran azaldu zenez, ez dira bere alderdiaren aurrekontuak, baina PSE-EEren emendakinetan gehienak islatuta geratu direnez akordioa itxi du gobernu taldeagaz. Honako hauek dira alderdi sozialistak aurrekontuei egindako ekarpenetariko batzuk: datorren urtean izotz pista ipintzeko konpromisoa hartzea, aurrekontuaren soberakinagaz Garai jauregia eta Kapitanena baserria birgaitzea, jolasgune bat estaltzea

2022ko proiektuak:

- Juan de Itziar eta Aramotz auzoetako gizarte etxeak birgaitzea.
- Madalenako eta Pinondoko parkeak berritzea.
- Andra Mariko elizpea berritzea.
- Jolas parkeak berritzea eta parke horietariko batean aterpe bat ipintzea.
- Kapitanena baserria eta Murruta Etxea birgaitzea.
- LGTBfobiaren kontrako plan estrategikoa sortzea.
- Enplegurako diru laguntzen partida handitzea.
- Energia berriztagarriari begirako neurriak hartzea.

Proiektu horiek eta gehiago kudeatzeko, 38.711.000 eurotik gora izango dute.

Iazko aurrekontua baino %14 gehiago.

ta Pinondoko zein Intxaurrendoko inguruak hobetzea. Ruizek esan zuen beste eskari batzuek ez dutela islarik izan. Urki-Hegoalde saihesbidea eta Eguzkitzako industrialdea garatzea, adibidez.

EAJk, ostera, kontrako botoa eman zuen. Josune Escota ordezkariak "negoziatzeko intentziorik ez izatea" egotzi zion gobernu taldeari, eta gaineratu zuen aurrekontuei bizkarra emateko arrazoiak hainbat diren arren, bat dela "nagusia": herritarrei aplikatzen zaizkien zerga zuzenen igoera. "Iaz, udalkutxatik jasoriko dirua gutxitu zela eta, pandemiaren aitzakiapean, zergak igotzea erabaki zen, eta badirudi neurri horrek bere horretan jarraituko duela etorkizunean ere", kritikatu zuen ordezkari jeltzaleak. Udal gobernu taldeak eta EAJk akordioa itxi zuten iaz, baina orduko hartan harturiko konpromisoek "betetze maila eskasa" izan dutela iritzi zion. "Merkatu plazan egindako esfortzua minimoa izan da", gaineratu zuen. Bestalde, Escotak "irrigarritzat" jo zituen aurrekontu parte hartzaileetara bideratutako 100.000 euroak.

390.349 euro bideratuko dituzte durangarren kontratazioak sustatzeko

Kontratatzaren diren langabeak hiru hilabetez edo gehiagoz egon ahalko dira Gizarte Segurantzaren alta emanda



Lanbideguz elkarlanean martxan ipinitako proiektua da.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak kontratazioarako laguntzetarako epea zabaldu du. Ia 390.350 euro bideratuko ditu egitasmo horretara, iaz baino %209 gehiago. Horri eskerrak, Durangoko Udalak, Lanbideren laguntzagaz, diruz lagunduko ditu gutxienez 3 hilabeteko iraupena duten lanaldi osoko edo lanaldi partzialeko lan kontratuak. Gutxienez, lanaldiaren %50ekoak.

Enpresek honako baldintza hauek bete beharko dituzte laguntzak eskatzeko: lantokia edo jarduera ekonomikoa Durangon izan beharko dute, eta zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzako kotizazioak egunean izan beharko dituzte. Bestalde, kontrataturiko pertsonen honako baldintza hauek bete beharko dituzte: kontratua formalizatu aurretik Durangon erroldatuta egotea Lanbiden,

enplegu-eskatzaile lez izena emanda egotea. Gehienezko laguntza 3.000 eurokoa izango da, gutxienez 3 hilabeteko iraupena duen lanaldi osoko kontratu bakoitzeko; eta 6.000

Gehienezko laguntza 3.000 eurokoa da, 3 hilabeteko lanaldi osoko kontratuetarako

eurokoa lanaldi osoko kontratu bakoitzeko, honek sei hilabete edo gehiago irauten badu. 35 urtetik beherakoen eta 55 urtetik gorakoen kasuan, zenbatekoa 9.000 eurokoa izango da.

Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 28an amaituko da. Kontsultak egiteko, 944657091 telefonora deitu daiteke.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko abenduaren 23a
20. urtea - 876. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gabonetako erakusleihen lehiaketa martxan ipini dute Durangon

Lehiaketan parte hartzen duten dendariak 1.500, 1.000, 500 eta 300 eurora arteko sariak jaso ahalko dituzte



Durangoko historia eta ikurrak nabarmentzen dituztenek 300 euro irabazi ahalko dituzte.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak Gabonetako erakusleihen lehiaketa antolatu du komertzio txikia sustatzeko asmoz. Lehiaketak hiru sari berezi izango ditu. 1.500, 1.000 eta 500 eurokoak izango dira. Horrez gainera, aipamen bereziaren saria ere egongo da. Durangoko historia eta ikurrak nabarmentzen dituzten saltokiek 300 euro irabazi ahalko dituzte. Lehiaketan parte hartzeko eskabideak aurrez aurre aurkeztu beharko dira Turismo Bulegoan (Kurutzasantun), martitzenetik domekara, 10:00etatik 14:30era. Lehiaketan parte hartzen duten dendariak urtarilaren

5era arte izan beharko dute dekorazioa ikusgai. Udal iturriek azaldu dute epaimahaiaren bisita-ibilbideak data horretan amaitzea aurreikusita dagoela. Epaimahaiak honako irizpide hauek baloratuko ditu: erakusleihen kalitate estetikoak (50 puntu, gehienez), originaltasuna, argitasuna eta sormena produktuaren azalpenean (25 puntu gehienez), eta Durangoko udalerraren historiagaz eta ikurrekin lotura (25 puntu, gehienez). Bestalde, Durangoko Udalak Komertzio Bonuen hirugarren kanpaina ipini du martxan www.bonoa.durango.eus webgunearen bitartez.



Zornotzako udal ordezkariak eta beka jaso dutenak azterlanen aurkezpenean.

Hernandezek eta Mentxakatorrek Santiago Onaindia bekagaz landurikoak azaldu dituzte

Beka honegaz, Zornotzako Udalak euskal literaturaren inguruko azterketak sustatu gura ditu

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Euskal literaturaren inguruko azterketa eta ikerketa sustatzeko asmoei eutsita, Santiago Onaindia bekaren onuradunek euren proiektuak azaldu dituzte. Xabier Hernandezek "literatura didaktikaren egoera eta erronkak" identifikatu eta hainbat proposamen pedagogiko-didaktiko planteatu du. Horretarako, ikerketa kualitatibo bat egin du. Literatura didaktikan esku hartzen duten eragileengana jo du zuzenean: Unibertsitate irakasleengana, ikasleengana, idazleengana zein argi-

taletxeetara. Bertako informazioa jaso eta tratatu ostean, honako ondorio hau atera du: "Literatura lantzeko behar bat" dagoela, eta, "askotan, gaitasunaren mesedetan, literatura albo batera" utzi izan dela. Egoera horri buelta emateko, errutina literarioak planteatu ditu liburuan. Bigarren Hezkuntzan lantzeko moduko material didaktiko berritzaileak proposatu ditu eta metodologia kuantitatibo bat zehaztu du literaturak euskal gazteen garapen emozional, kognitibo eta sozialean izan dezakeen inpaktua neurtzeko.

Bestalde, hemendik aurrera bekari esker landuko duen gaia aurkeztu du Jon Mentxakatorrek. *Euskal ipuin eta leiendak. Antologia eta azterketa* izeneko proiektua garatuko du. Ikerlariaren berbetan, ipuin eta leiendak "euskal ahozketasuneko corpus ezberdinetan bildu izan dira". Gehienbat, "mitoen eremuagaz lotuta". Hori dela eta, XIX. mende amaieratik gaurdainoko materiala aztertuko du proiektuan. Behin material hori antolatuta, ondare hori termino poetikoen aztertuko du.

Zornotzako sei ikastetxeetako 336 ikaslek parte hartu dute herriko idazlan lehiaketan

Ohiko ekitaldia antolatu beharrean, irabazleei sariak banatu zizkieten abenduaren 20an

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Sociedad Artístico Cultural Zornotzak ikasleentzako idazlan lehiaketa antolatu du. Abenduaren 20an sari banaketa egin zuten. Aurtengo

edizioan, iazkoan baino 80 lan gehiago aurkeztu dituzte. Guztira, hiru mailatan sailkatu dute lehiaketa, eta 336 ikaslek parte hartu dute. 11 urtera arteko mailan, Nile

Basantek eta Izaro Esturok irabazi dute. 12tik 14 urtera artekoetan, Eider Aburtok eta Anes Ekaterinak. Eta 15etik 18ra artekoetan, Jon Lorenzok eta Ainhoa Calvetek.



Ikasleek saria jaso zituzten momentua.

Ate irekiak urtarilaren 15ean

LAUAXETA IKASTOLA

Ezagutu gaitza gertutik!

www.lauaxeta.eus

"Pena ematen digu U2 uzteak, baina Herriko Taberna hartzea pauso bat aurrera ematea da"

Eguaztenetik berriro ere zabalik dago Mañariko Herriko Taberna; U2 tabernaren ardura zutenak dira kudeatzaile berriak



MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Enrike De Costa eta Irune Garitaonandia senar-emazteek Mañariko U2 tabernaren ardura izan dute orain arte. Aurrerantzean etapa berri bati ekingo diote, errepidearen beste aldean Herriko Tabernaren ardura hartu dute eta. Eguaztenetik zabalik dago.

Ilusionatuta etapa berriaren aurrean?

Irune Garitaonandia: Bai. Ezezagunari beti izaten zaio beldur apur bat, baina batez ere ilusioa da daukaguna. Urduritasuna eta ilusioa.

Urte asko eman dituzue U2 tabernan.

I.G.: Bai, Enrikek hamalau-hamabost urte eman ditu. Nik zazpi urte daramatzat beragaz eta azkenengo hiru urteak eman ditut tabernan lanean. Hantxe elkar ezagutu genuen. U2 tabernan izan zen gure lehenengo musua!

Pena ematen dizue U2 uzteak?

I.G.: Pena itzela! Nik beti esan dut U2 taska bat baino gehiago izan dela. Negar anpuluak ere irten zaizkigu. Bizipen asko dira eta, azkenean, herriko jendeagaz familia bat sortu dugu. Hantxe elkartzeko ziren asko. Ez zegoen derrigor kuadrillan joan beharrik. Bakarririk joaten zenak ere beti aurkitzen zuten norbait.

U2 hain berezia bazen, zergaitik erabaki duzue aldatzea?

I.G.: Herriko tabernarako lehia-ketak irten zuenean elkarri esan genion: "Zergaitik ez?". Pena ematen digu U2 uzteak, baina Herriko Taberna hartzea pauso bat aurrera ematea da. U2n afariak ematen hasi ginen, baina ez zegoen toki askorik. Herriko Tabernan espazio gehiago dago eta aukera gehiago dugu alde horretatik hazteko.

Zein izango da eskaintza?

E.D.C.: Egunko bazkariak ematen hasiko gara. Bariku, zapatu eta domeketan bazkariak ez ezik afariak ere emango ditugu, eskaintza zabalagoagaz. Mendizale asko etortzen denez, eurei begirako bazkariak ematea da plana. Esaterako, U2ko karrillerak ezagunak ziren eta hori ere eskainiko dugu. Neu izango naiz sukaldaria eta Ana arreba lagunduko dit.

I.G.: Ni denean arituko naiz apur bat. Sukaldean, zerbitzen...

Zelan sortu daiteke U2k zuen xarma Herriko Tabernan?

I.G.: Gatxa da. Tabernaren esentzia Enrike zen eta berak jarriko du. U2-n beheko sua genuen eta haren bueltan batzen ginen sarritan, zahar eta gazte; Herriko Tabernan ez dago beheko surik, baina haren bueltan sortzen zen berotasun hori han ere joango gara sortzen.

Eraman duzue U2ko ezer oroigarri modura etxera?

E.D.C.: Bai, eramanez dugu eta herriko jendeak ere eskatu dizkigu gauzak. Batek propinen kanpaia eramanez du; beste batek Motorhead taldearen koadroa. U2ren zatitxo batek beti irauko du euren etxeetan.

Trabakuko errepidea zabalik dago behin-behineko bypass batez

Lur-jausiak eragindako kalteak konpontzeko lanak martxo amaierara arte iraungo dute. Errepidea konpontzen hasi aurretik, mendi-hegala egonkortuko dute euste-hormekin

MALLABIA • J.D.

Abenduaren 10ean lur-jausi bat gertatu zen Trabakuko BI-633 errepidean, euriteen ondorioz. Egun askoan errepidea itxita egon eta gero, martitzenetik trafikora zabalik dago, errei bateko

bypass baten bitartez. 115 metroko luzera duen bypass-a da eta semaforoek erregulatuta dago.

Lur-jausia gertatu zenetik, 2.000 metro kubiko lur erretiratu dituzte. Orain, errepidea konpontzen hasi dira. Piboteen

bitartez, euste-hormak eraikiko dituzte mendi-hegala egonkortzeko. Horren ondoren, errepidea konpontzeari ekingo diote. Lanek martxo amaierara arte iraungo dutela informatu dute Aldunditik.



Abenduaren 10eko lur-jausiak alderik alde zeharkatu zuen BI-633 errepidea Trabakuan.

Zoriontasunaren kolorea deskubritzea helburu

OTXANDIO • J.D.

Abenduaren 26an, 17:30ean, Oihan Vegak umeentzako *Ipuin dantza* antzerkia eskainiko du Otxandioko pilotalekuan. Sarrerak egunean bertan eskuratu daitezke: nagusia 2 euro da eta umeena euro bat.

Amets izeneko umea da antzezlaneko protagonista. Ametssek hainbat emozio sentituko du eta bakoitza kolore batez lotuko du. Baina bene-benetan deskubritu gura duena zoriontasunaren kolorea da. "Kantarik kanta eta dantzarik dantza Ametsi zoriontasunaren kolorea deskubritzen lagunduko diogu", azaldu du Vegak. COVIDa dela-eta, antzezlaneko jokoak eta dantzak umeak euren eserlekuetatik mugitu barik egiteko moduan diseinatu dituzte.

Nagusientzako mantentze-klaseak aurrera, COVID ziurtagiria erakutsita

IZURTZA • J.D.

Izurtzan mantentze-gimnasiako ikastaro bi eskaintzen dituzte; bata Udalak antolatutakoa, erabilera anitzeko eraikinean, eta bestea jubilatuen elkarteak an-

Erabilera anitzeko eraikinean eta jubilatuen lokalean egiten dituzte ikastaroak

tolaturikoa, udalaren jabetzakoa den jubilatuen lokalean. Kurtso bietan parte hartzen dutenek atzora arteko epea izan dute udaletxera COVID ziurtagiria eramateko, aurrerantzean kurtsoetara joateko. Tramite hori beteta, orain arte lez jarraitu ahal izango dute kurtsoetan.



Ostalaritza gida



Durango



OIERDI

Herriko gudarien 8, DURANGO

Tel.: 946 129 824

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



Iurreta



GAUARGI

Dantzari Etxetaldea, IURRETA

Tel.: 944 356 674

·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...



Durango



AI AMA

Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO

Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!



Abadiño



ABARKETERUENA


Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



Durango




MIKELDI TABERNA

Kalebarria, 7 - DURANGO

Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Atxondarrak arduratuta, azken asteotan gertatu diren lapurretengaitik

Xabier Azkarate Atxondoko alkateak azaldu duenez, "oso arduratuta" daude egoeragaz



Lapurretarik gehienak herrigunean izan dira.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken asteotan ardura da nagusi Atxondoko herritarren artean. Ia egunero lapurretak gertatu dira herrian, eta herritarrek oso arduratuta daude egoera horregaz. "Azken asteotan hainbat lapurreta egin dute; etxeetako hainbat garajetan sartu dira, baita lonja eta kamaroteetan ere. Hainbat auto-

Atxondoko alkateak adierazi du Ertzaintzagaz hartu-emanetan daudela

tan ere ostu dute, baita kioskoan ere", azaldu du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak. Horrez gaine-

ra, farmazian ere sartzen ahalegin du direla esan du alkateak.

"Ertzaintzagaz hartu-emanetan gaude. Arduratuta geundela adierazi genien eta eurekin batzartu gara. Eguntan herritik patruilatzeko dabilza, gau eta egun. Badute susmoa lapurra nor den. Ea egoera honeguz laster amaitzen dugun", amaitu du alkateak.

Megako langileak ERTEan eta enpresa hartzekodunen konkurtsoan daude

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Melchor Gabilondo (MEGA) enpresako langileak kalera

ateratzen hasi ziren azaroan, euren egoera salatu eta hitzarmen berri bat sinatzeko. Baina euren



MEGAko langileek hainbat mobilizazio egin dute.

egoera ez da hobetu eta komiteko kide batek jakinarazi duenez, langileak ERTEan eta enpresa hartzekodunen konkurtsoan daude gaur egun. "Egoera jasanezina da. Lantokian 102 langile gaude eta ez dakigu gugaz zer gertatuko den", jarraitu du komiteko kideak.

Langileek martxoaren 31ra arte dute ERTEa, eta epe hori baino lehenago soluzio bat izatea itxaroten dute. "Dagoeneko hartzekodunaren eskuetan gaude. Hartzekodunak ikusi beharko du ea enpresa bideragarria den ala ez, eta horren arabera gure etorkizuna bat edo beste izango da", jarraitu du.

Bestalde, mobilizazioak egiten jarraituko dutela azaldu dute, euren egoera salatzeko.

Elorrioko kiroldegian abantaila berriak eskainiko dituzte

2022ko prezioetan abantaila berriak eskainiko dituzte. Gainera, udal kiroldegia berrikuntzak izango ditu

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Elorrioko Udalean kirola eta jarduera fisikoa sustatzen dituen Sailak udal kiroldegia 2022rako izango dituen berrikuntzen berri eman du. Ildo horretatik, datozen egunetan herritarrei informazio guztia helaraziko dietela jakinarazi dute: tarifak, zerbitzuak eta kirol ikastaroei buruzko informazioa.

2022an kiroldegiko prezioak hobetzearen aldeko apustua egingo dute. Hori horrela, pentsiodunek eta %51tik %100era arteko desgaitasuna duten pertsonen prezio bereziak izango dituzte. Uretako eta lurreko jardueretara eguneko sarreragaz sartzeko aukera eskainiko dute eta urteko lehenengo hiruhilekoan kiroldegiko eta

Elizaldeko urteko ordainketa bateratua egiteko aukera egongo da. Horri eskerrak, erabiltzaileak 20 euro aurreztuko ditu.

Horrez gainera, instalazioetan hobekuntzak egiten ere jarraituko dutela azaldu dute. Esaterako,

%51tik %100era arteko desgaitasuna duten pertsonen prezio bereziak izango dituzte kiroldegian

goiko solairuko jarduera-gela berrituko dute. Bestalde, aurrean, umeentzako udako igeriketarikastaro intentsiboak eskainiko dituztela jakinarazi dute.

Elorriko Gabonetako Artisau Azoka egingo dute gaur

Eixu elkarteak antolatuta, Gabonetako Artisau Azokaren hirugarren edizioa egingo dute abenduaren 23an

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eixu elkarteak antolatuta, Gabonetako Artisau Azokaren hirugarren edizioa egingo dute abenduaren 23an. 9:30etik 14:30era, 11 artisau bilduko dira Herriko Plazan, eta askotariko produktuak egingo dira eskuragai: zu-

rezko tailak, zeramika, kosmetika, zilarrezko bitxiak, oihalezko osagarriak eta arte grafikoak, besteak beste.

Elorrioko Udalak azokara joateko deia egin die herritarrei. Eta gaineratu du segurtasun neurriak hartuko dituztela.



Elorriko Herriko Plazan egingo dute azoka.



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

ZATOZ!
EZAGUTU
GAITZAZU



ATE IREKIAK
Urtarrilaren 14an, 15:30ean

IZENA EMAN: SANJOSE@DURANGOJESUITAK.ORG EDO 946 81 00 50

jsu
Jesuitak

Durango

KRISTAU ESKOLA

Biharko ametsak, gaurko erronkak

Q

Urrezko Q ziurtagiria

946 81 00 50
sanjose@durangojesuitak.org
www.durangojesuitak.org

Abadiñoako ikasleek euskal milizianoen material historikoa ikertu dute

DBHko 4. mailako hamar ikaslek gerra garaiko euskal milizianoen materiala txukuntzen aritu dira Aranzadigaz

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiñoako institutuko ikasleek Aranzadi Zientzia Elkartearen ikerlan batean parte hartu dute. DBHko laugarren mailako hamar neska-mutil zientzia elkarteko kideekin aritu ziren beharrez, joan zen eguenean, Aranzadik Donostian duen laborategian. Ikasleek memoria historikoa berreskuratzeko ikerketetarikoa batean parte hartu zuten. Hain zuzen ere, gerrako gudari euskaldunen objektuak eta arrastoak garbitzen, txukuntzen eta katalogatzen.

Jokin Leniz historia irakaslea da Abadiñoako institutuan. Azaldu duenez, "Aranzadiko kideek boluntarioak behar zituzten ikerketa aurrera eramateko". Eta hori ikusirik, Lenizek berak proposatu zien Aranzadiko kideei DBHko ikasleak boluntario lanetan aritzeko aukera. "Besoak zabalik hartu zuten proposamena", dio irakasleak. "Ins-

titutuko zuzendaritzak birritan pentsatu barik erabaki zuen autobusa ipintzea txangoa egiteko. Eta ikasleak hor aritu ziren, objektuak garbitzen eta txukuntzen. Bala-zorroak arakatu zituzten, bolbora arrastoak kendu, latak, granada zatiak garbitu,... denerik egin zuten". Lenizen berbetan, Eusko Gudarostean garaiko lerro defentsiboetan agerturiko materiala txukuntzen aritu ziren.

Historia irakasleak boluntario-tza lanaren balantze positiboa egin du. "Gurasoek esan didate umeak oso pozik bueltatu direla txangotik, oso emozionatuta. Askok institutura deitu dute eskerrak emateko", dio. Bestalde, Lenizek azpimarratu du "lehenengo aldia" dela adin tarte hain baxuko boluntario talde batek Aranzadiren ikerlan batean parte hartzen duela. "Normalean unibertsitateko ikasleek parte hartzen dute", gaineratu du.



Abadiñoako eskolako ikasleak Aranzadik Donostian duen laborategian.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Abadiñoako udalbatzak udal igerilekuen estalkia egiteko kontratua esleitu barik uzten duen eta obraren esleipendun izateari uko egin dion enpresari lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren %3ko zigorra (31.898,48 euro) ezartzen dion ebazpena onartu du osoko bilkuran. "Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 150.2 artikulua eskatzen duen moduan. Modu berean, udalagaz kontraturik sinatzeko debekua ezartzeko prozedura hastea erabaki da", azaldu du udalak. Enpresari 10 egune-

Udalak zigortu egingo du igerilekuetako estalkia egiteari uko egin dion enpresa

31.898,48 euroko zigorra eta urte eta erdiz udal kontratuak eskuratzeko debekua ezarriko diote

ko epea emango diote ebazpenari buruzko alegazioak aurkezteko. Astolako udal igerilekuen estalkia eraiki behar zuen enpresak joan den azaroan jakinarazi zion udalari uko egiten ziola kontratuaren

esleipendun izateari. Enpresaren esanetan, obra ez da errentagarria materialek gaur egun duten prezioagaitik eta energia-kostuen gaitik. Kontratu horri esleitutako zenbatekoa 1.286.572 euro da.



Abadiñoako igerilekuak.

Zabortegeko arduradunek ingurumen deliturik egin ote zuten ikertzen hasi dira

Zaldibarko Verter Recycling zabortegeko arduradunak Durangoko epaitegian deklaratzera deitu zituzten

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Zaldibarko zabortegeko arduradunak Durangoko epaitegian deklaratzera deitu zituzten astelehenean, hondakindegiko lur-jausiaz ingurumen deliturik egon ote zen ikertzeko. Kanpoan, gizarte eragileek protesta egin zuten. Zaldibar Argituk, LAB sindikatuak eta Eskubide Sozialen Kartak luizari loturiko erantzukizunak "azkeneraino" ikertzea eskatu zuten. Zaldibar Argituko Gaizka Zabartek adierazi zuen erantzukizun horiek "arduradunenak"

bakarrik izan barik, gertaturikoa "ahalbidetu zuten agintari politikoek" ere badirela. Zabartek gogoratu zuen Zaldibar Argitu eta Eskubide Sozialen Karta "langileen osasunaren kontrako delitua ikertzen zuten auzitik kanpora" geratu zirela. "Handik hilabetera itxi zuten auzia eta oraingoz ez dugu sententzia ezagutzen. Arduradunek homizidioda onartu zuten sei hilabeteko kartzela zigorraren truke. Beste era batera esanda: aberatsak ez doaz kartzelara", azaldu zuen Zabartek.



Astelehenean Durangoko epaitegi aurrean egindako elkarretaraztea.

Mankomunitatearen ikerketaren arabera, tabakoaren, alkoholaren eta kalamuaren kontsumoak behera egin du gazteen artean

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko, Bigarren Hezkuntzako, Batxillergoko eta Heziketa Zikloko 9 eta 20 urte bitarteko 2.136 ikaslegaz egin du ikerketa Mankomunitateak. Aurretik, 2012an eta 2016an egin zuten azterlan hori



Mankomunitateko ordezkari politikoak eta teknikariak Elkartegi aurrean.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Lau urterik behin, Durangaldeko Mankomunitateko Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak adikzioei buruzko 'Drogen eta teknologien erabilerari buruzko ezagutza, jarrera eta ohiturak' izeneko ikerketa egiten du eskualdeko hainbat ikaslegaz. Asteon aurkeztu dituzte azterlanaren emaitzak, eta emaitza horiek aurkezteko, Mireia Elkororibe Mankomunitateko presidentek ikerketaren balioa nabarmendu gura izan du prentsaurrekoan. "Ikerketa hau oso garrantzitsua da, ezin gara erlaxatu. Arlo honetan distantzia luzeko lasterketa bat dugu", azaldu du Elkororibek.

Arrate Arana Adikzioen Prebentzio Zerbitzuko teknikariak eta Vicente Fernández zerbitzu horre-

tako arduradunak nabarmendu dutenez, gazteek gehien erabiltzen dituzten drogen (tabakoa, alkohola eta kalamua) kontsumoak behera egin du. 2012tik 2020ra tabakoa probatu duten pertsonen ehunekoak %14,1 egin du behera, alkoholaren kasuan %14,8 eta kalamuaren kasuan %11.

Bestalde, inkestaturiko pertsonen %27k 2020an kalamua probatu dutela diotela dio ikerketak, eta %7,4k kontsumitzen jarraitzen dutela.

Horrez gainera, Interneteko jokoen eta sare sozialen erabilerak gora egin duela dio ikerketak. Sare sozialen erabilerari dagokionez, jendea ezagutzera bideratzen da batez ere, eta gehienek zuhurtziaz jokatzeko dutela nabarmendu dute ikerketaren bultzatzaileek. Apustuak dagokienez, 2020an Internet bidezko apustuen ehunekoak behera egin duela azaldu dute.

"Ikerketak informazio asko eman digu eta honek urtean zehar jarraitu beharreko bideorria markatu digu", esan du Aranak.

Txakurrak jasotzeagaitiko zerga baino ez dute igoko Garain

Gainerako zergek eta tasek ez dute aldaketarik izango. Ur, zabor edo ibilgailu zergek izoztuta jarraituko dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Ez gora, ez behera. Garaiko Udalak bere horretan mantenduko ditu orain arte indarrean egondako zergen eta tasen kopuru ia guztiak. Hau da, urari, ibilgailuei eta zaborrari aplikatutako zergek bere horretan jarraituko dute datorren urtean. Aldaketa bakar bat baino ez da egongo. Kale txakurrak batzeko zerbitzuari dagokiona. Izan ere, zerga hori igotzea erabaki du udalbatzak.

Kontua da udalerriren batean txakurren bat baldin agertzen bada, udalarena dela animalia hori jasotzeko eta txakurtegira eramateko betebeharrak. Eta txakurtegiko prezioak igo egin direnez gero, Garaiko Udalak zerbitzuari loturiko prezioa igotzea erabaki du. Hau da, hemendik

aurrera jabea duen txakurren bat bere identifikazio txip eta guzti galduta agertzen bada, jabeak orain artekoa baino prezio altuagoa ordaindu beharko dio udalari. Txakurra jaberik bakoa bada eta identifikaziorik ez bada, orduan udalak hartu behar

Jabea duen txakurren bat galduta jasotzen badute, jabeak gehiago ordaindu beharko dio udalari

izaten du gastua bere gain. Garaiko udal iturriek diote normalean ez dela horrelako egoerarik sortzen. "Lehen gehiago, baina gaur egun gutxitan gertatzen dira halakoa egoerak", argitu dute.

Tellitun anfiteatro txiki bat eta egoiliarrentzako 30 aparkaleku egokitu dituzte

Urteetan aparkalekua izan den orubean 17 etxebizitza eraiki dituzte eta Uralde kaleagaz lotura berria zabaldu dute



Plazan egurrezko estaldura bat jarriko dute, besteak beste.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Ia 15 urtean aparkaleku modura erabili den Tellituko orubea urbanizatu dute. Orubearen jabea izandako etxe eraikitzaileak 17 etxebizitza eraiki ditu bertan, eta Uralde kaleagaz lotura berria zabaldu du, "herriguneko inguru horretako hiri-bilbea osatuz". Halaxe azaldu dute udal arduradunek. Ingurua urbanizatu ondoren, 375 metroko anfiteatro txiki bat dute Bixente Kapanaga kaleko 16. zenbakiaren aurrean. Era berean, egoiliarrentzako 30 aparkaleku berri egokitu dituzte; horretarako, Trafikoa Arautzeko Ordenantza (TAO) aldatzen hasi da Iurretako Udala.

Aparkalekua

Iurretako Udalak 2007an egokitu zuen Tellituko lursaila aparkaleku modura. Orduan lotu zuten hitzarmena orubearen jabea den etxe eraikitzaileagaz. 2015ean TAO indarrean ipini zutenetik, egoiliarrentzako 70-75 aparkaleku inguru egon dira Tellitun.

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o DENA AMETSA DEN IRUDIPENA Leire Vargas (Elkar)

2^o MIÑAN Amets Arzallus & Ibahima Balde (Susa)

3^o ASTERIX ETA GRIFOA Jean-Yves Ferri & Didier Conrad (Salvat)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

Andereak elkarretaratzera deitu du azken hilketak matxistak salatzen

Martitzenean kandelak piztu zituzten Durangoko udaletxearen aurreko mobilizazioan



Udaletxe aurrean egindako mobilizazioa.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko Andereak elkarrekin bat egin zuten martitzenean Estatuko deialdi batez, azken hilketak matxistak salatzen. "Emakume eta nesken kontrako sarraskia" dela uste du elkarrekin. Lau hilketak matxista gertatu dira hiru egunetan –horien artean haur batena, eta "amorrua, gaitzespena eta mina" erakusteko, kandelak eramateko eskatu zuten. Genero indarkeriaren aurkako Estatu Ituneko dirua zenbat eta zelan gastatzen den jakitea

eskatzen dute. Andereak informazio hori idatziz eskatu die bai Durangoko Udalari eta baita Mankomunitateari, Aldundiari eta beste erakunde batzuei ere. "Oraingoz ez dugu erantzunik jaso", esan dute.

Genero indarkeriaren aurkako Estatu Ituneko dirua zelan gastatzen den jakin gura dute

Elkarrekin uste du erakundeek ez dutela "behar den beste" egin arazo horri aurre egiteko, eta "gardentasuna eta ekintza irmoak" eskatzen ditu, biktimak emakumeak eta nekatoak dituen pandemia horri aurre egiteko, amaiera ez baita ikusten.

Politikan

Jesica Ruiz

PSE-EE



Izotz pista lortu dugu

Zenbakiak adierazten digute, Durangon urterik urte eta adin-tarte desberdinen artean arrakasta handia izan duen jardueraren bat badago, zalantzarik gabe izotz-pista dela. Gainera, berari esker, inguruko udalerrietako jende asko etortzen zen Durangora, horrek herriko denda txikiei eta tokiko ostalaritzari dakarkien onurarekin.

Iaz bizi izan genuen osasun-larrialdiak justifikatu zuten ez egotea, baina aurten ez. Aurten ez diezaiozun errua pandemiari bota; izan ere, jarduera horren aforoa erraz kontrola daiteke, eta oso erraza da pilaketak saihestea.

Azkenengo asteetan hainbat kexa izan ditugu, adin desberdinetakoak hurbildu zaizkigu haserre, izotz pista eske

Azkenengo asteetan hainbat kexa izan ditugu, adin desberdinetakoak hurbildu zaizkigu haserre, izotz pista eske. Datoren urtean ez dezatela jarri aitzakia modura aurrekontuetan ez dagoela jasota. Lortu ahal izateko bururatu zitzaigun modurik onena 2022ko aurrekontuetan emendekin baten bidez eskatzea izan zen, eta horrela egin genuen. Hasieran, erantzuna ezezkoa izan zen, hainbat aitzakia jarritz, baina azken orduan baiezkoa lortu genuen. Argi utzi nahi dugu, noski, ingurugiroa zaintzeko, jarriko den izotz pista sintetikoa izango dela.

Alderdi sozialistak oposizio arduratsu bezala jokatu dugu; bada, hori da herritarrek eskatzen digutena. Beraz, oso pozik gaude, esan dezakegulako datoen Gabonetan, ezustekorik ezean, Durangok izotz-pista izango duela berriro!

Durungaldea asteen

Elorriok omenaldia egin die herriko adinekoei 2022ko egutegian

Durungaldea | 'Bizitza osoa' lelopean, elorriarrek lehiaketa baten bitartez egin dute 2022ko udalaren argazki egutegia. Aurten ere, herritarrek egin dituzte 2022ko egutegiko argazki guztiak, eta epaimahai espezialista bat arduratu da 13 argazkiak aukeratzeko. Datozen egunetan etxebizitza guztietako postontzietan banatuko dituzte.

Kontseilu Sozialistak mobilizaziora deitu du "biolentzia kapitalistari" aurre egiteko

Durango | Durungaldeko Kontseilu Sozialistak mobilizazioa egingo du "kapitalismoak eragiten dituen indarkeria adierazpide askotarikoak" (indarkeria matxista, lanpostuetakoa edo muturreko pobrezia) salatu eta aurten "eraildako pertsonak" omentzeko. Mobilizazioa abenduaren 30ean egingo dute, 19:00etan, Durangoko Andra Maritik hasita.

AP8 Plataforma: "Durangaldeari beti tokatzen zaio ordaintzea"

Durungaldea | AP8 Peajerik Ez plataformak EAjren jarrera kritikatu du. Durangoko trenbidearen kasuan, plusbalio patrimoniala eskatzen dutela salatu du. Plataformako kideek uste dute AP8ko ordainsariagaz berdin gertatzen dela. "Lur horiek kosterik barik entregatu zitzaizkiela ahazten dute", diote ohar batean.

Iritzia

Baimena al dugu liburutegian sartzeko?

(Durangoko liburutegira abenduaren 19an bidalitako gutun irekia; laburtuta)

Dagokionari:

Abenduaren 17an, ostirala, jakin genuen Eusko Jaurlaritzak, 47/2021 dekretuaren aplikazioan, COVID ziurtagiriaren eskakizuna –bidegabea eta diskriminatzailea– museo eta liburutegietara ere zabalduko zuela. Hala, goiz hartan bertan Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekako bi sarreretan honako hau zioen kartel bat zegoen: BEHARRZKOA COVID ZIURTAGIRIA.

Hala ere, hilaren 17an bertan, Lakuak agiri bat argitaratu zuen dekretuaren nondik norakoak argitzeko. 7. orrialdean, honako galdera hau irakur dezakegu:

COVID ziurtagiria beharko da zentro zibiko edo liburutegietan?

Eta erantzuna:

"Bai, kultura espazioak diren heinean. Ez zaie eskatu beharko liburutegietara liburu bat hartzera joaten direnei, ezta liburutegia bera lan-eremutat dutenei ere (adibidez, ikertzaileak)".

Hala ere, larunbatean, hilak 18, aurreko kartelaren ondoan beste bat jarri zen, ñabardurarik gabe, aurrekoa indartzen duena eta kalte-tuen eskubide eta askatasunetarako arauaren aplikatze murriztaileagoa eta kaltegarriagoa iradokitzen duena.

Horregatik, gorago aipatutako dokumentazioa ikusita, Bizenta Mogel Bibliotekako arduradunei eraikinaren bi sarreretan dauden kartelak aldatzeko eskatzen diet.

[Oharra: Abenduaren 20an, goizean, liburutegiko arduradunak nirekin harremanetan jarri ziren gutuna eskertzeko eta kartelak aldatuko zituztela jakinarazteko. Egun berean, aldiz, Abadiñoko Udal Mediatekaren sarreran aipatutako kartelen antzekoak jarrita zeuden.]

Ander Berrojalbiz

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - JURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

R.P.S. 214/06

A. Urreta podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

MAKALLAU saltsan

saltsan
KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSAEn bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketak, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329


Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



ITZALAK

Behean dauden itzal guztietatik zein dagokio alboko irudiari?



ZEIN OTE?



Zein da oparirik gustukoena?
Jarraitu emandako pistei eta
jakingo duzu.

- Zinta dauka
- Ez da hirukia
- Ez da laukizuzena
- Kolore bi baino ez ditu

DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zortzi diferentziak.



HUTSUNEAK BETE

Hutsuneak bete eta zein ikasgairi buruz gabiltzan jakingo duzu.



G _ _ G R _ F _ A



_ _ S T _ R _ A



I _ G U _ _ M _ _ A



P _ A S _ _ K _



_ _ A T _ M _ T I _ _



G _ M N _ S _ _



K _ _ I K _



_ _ U S _ K _

TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu pilota hauek txikitik handira





Gabonak

JOLASGUNEAK DURANGALDEA ::

Datozen egunetan jolasguneak zabalduko dituzte eskualdean

Gabon giroan sartuta, Durangaldean umeentzako parkeak zabalduko dituzte datozen egunetan. Zornotzakoa izango da lehengo zabaltzen, abenduaren 27tik 30era (11:00-14:00/17:00-21). Adinaren arabera, gune bi egongo dira. Gainera, gazteentzat ere zabalduko dute gune bat, Zelaieta Zentroan (17:00-21:30).

Bestalde, Durangon, Jolas Eguna antolatu dute hiru egun horietarako Tabira auzoan, 12:00etan.

Iurretan Kepa Arroitauregi frontoian ipiniko dute jolasgunea, abenduaren 27tik 29ra (11:30- 13:30/17:00-20:00). Eta, Mañarian, umeentzako tailerak antolatu dituzte egun horietarako, liburutegi zaharrea

(10:00-13:00). Zaldibarren, eskolako kiroldegian izango dute jolasgunea, abenduaren 28an eta 29an (12:00-14:00/17:00-20:00). Durangon, Jolas Eguna izango dute: Muruetarren abenduaren 28an, eta San Fauston 29an.

Abadiñon jolasgune bi egongo dira, hilaren 28tik 30era bitartean: Probalekuan 9 urtera arteko neska-mutikoak batuko dira, eta Traña-Matienako frontoian 10 urtetik gorakoak (11:30-13:30/16:00-20:00).

Abenduaren 23an

ZALDIBAR kirola

I. Emakumeen Olazar Pilota Txapelketa: Garai-Arrizabalaga, 21:30ean.

Abenduaren 24an

ABADIÑO kalejira

Gabonetako lasterketa, Muntzaratzetik: 8 urtera arte 11:30ean, eta, 9-12 urtekoak 11:45ean. Besteak, 12:00etan. **Olentzeroren postontzia**, Traña plazan (11.30-15:00). **Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira**, 16:30ean: Traña-Matienan-Muntzaratz-Zelaieta.

BERRIZ kalejira

Auzoetara joateko, 09:30ean, Olakueta plazan. **Olentzero eta Mari Domingi**, 17:30ean, herriko kaleetan.

DURANGO kalejira

Olentzero eta Mari Domingi, 19:00etan: Institututik abiatuko da, Ezkurdiko kioskoraino.

ELORRIO kalejira

Badatoz Olentzero eta Mari Domingi!, 18:00etan.

GARAI kalejira

Olentzero eta Mari Domingiren bila joateko, 17:30ean, plazan. Baserritarrez jantzita.

IURRETA kalejira

Olentzerorl harrera, 12:00etan, Bixente Kapanagan.

MALLABIA kalejira

Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria, 18:00etan, Parkeko aterpean.

MAÑARIA kalejira

Olentzero eta Mari Domingi, 17:30ean, plazan.

ZALDIBAR kalejira

Badatoz Mari Domingi eta Olentzero herri ekimena! Harrera Olazar kalean, 12:30ean. Jaialdia Zaldua plazan, 12:30ean.

ZORNOTZA kalejira

XVIII. Belatxikietara igoera, 09:30ean, Zelaieta parkean. **Olentzero**, frontoian 10:30-13:30/16:00-20:00).

Abenduaren 26an

DURANGO musika

Organo eta soprano kontzertua: Gerardo Rifón + Lucia Gomez, 19:30ean, San Frantsisko elizan. **'Kukui' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots)**, 16:00etan eta 19:00etan, Landako Gunean.

ELORRIO zirkua

Neguko zirkua, 17:30ean, Hilario Azkarate frontoian.

OTXANDIO zirkua

Oihan Vega, Mainondoko pilotalekuan.

ZALDIBAR San Esteban Eguna Gaztainak, urdaia, txorizoa eta taloa, 18:00etan, frontoian.

ZORNOTZA magia

'Amarru' (Tor Magoa), 17:00etan eta 19:00etan, Zelaietako auditoriumean.

Abenduaren 27an

BERRIZ kirola

Umeentzako pilota jokoak, 11:00etatik 13:00era. **Esku pilota jaiakdia**, 16:00etan. **'100 urteko soinuak. Organoa eta klarineta'**, 17:00etan, San Ebanjelariaren Elizan.

ZALDIBAR antzerkia

'Txiki handia zara' (Inigito Txapelpunk), 12:00etan, Olazar pilotalekuan.

ZORNOTZA pailazoak

'Ingurumena zaindu' (Potxin eta Patxin), 19:00etan, Zelaietako auditoriumean.

Abenduaren 27tik 30era

DURANGO Gabonetako zirkua

'Maluta', 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

MALLABIA argazki erakusketa

'Exodoa, hondakinak aterpe', Kontzejuzarreen (17:00-20:00).

Abenduaren 28an

ABADIÑO organo kontzertua Javier Artegas + Benantzi Bilbao + Josep M. Berenguer, 19:30ean, San Trokaz elizan.

BERRIZ antzerkia

'I(n)tera(k)zio' (Bagara), 19:00etan, Kultur Etxean.

ZORNOTZA antzerkia

'Organic' (Ameztu), 19:00etan, Zelaietako auditoriumean.

Abenduaren 29an

ATXONDO ipuinak

'Gabonetako ipuinak' (Leire Apika), liburutegian: 17:30ean (3-5 urte); 18:00etan 6 urtetik gorakoak.

ZORNOTZA musika

Disko festa: Paco Dj, 19:00etan, Zelaietako auditoriumean.

Abenduaren 30ean

BERRIZ zirkua

'Kobr3' (Zirkozaurre), 17:00etan, Olakueta frontoian.

DURANGO bertsoak

Urteko azken saioa: I. Elortza, M. Lujanbio, J. Soto, A. Bizkarra, M. Amuriza eta M. Artetxe, 20:00etan, San Agustin kulturgunean. Gai-jartzailea: Unai Iturriaga.

DURANGO musika

Joseba Irazoki eta lagunak, 20:00etan, Landako Gunean.

MALLABIA dokumentala

'A fine line' (Killian Jornet), 19:00etan, Kontzejuzarreen.

ZALDIBAR musika

Esti eta Mikel Markez, 19:00etan, Olazar frontoian.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• Encanto

eguna 23: 17:00

domeka 26: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• Matrix Resurrections

zapatua 25: 19:00/22:00

domeka 26: 16:45/19:45

astelehena 27: 16:45/19:45

martitena 28: 16:45/19:45

eguztena 29: 16:45/19:45

• West Side Story

zapatua 25: 19:00/22:00

domeka 26: 16:45/19:30

astelehena 27: 16:45/19:30

martitena 28: 16:45/19:30

eguztena 29: 16:45/19:30

• ¡Canta 2!

zapatua 25: 19:00/22:00

domeka 26: 17:15/19:30

astelehena 27: 17:15/19:30

martitena 28: 17:15/19:30

eguztena 29: 17:15/19:30

:: Elorrio ARRIOLA

• Petite Mamam

zapatua 25: 20:00

domeka 26: 20:00

astelehena 27: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• Cuidado con lo que deseas

domeka 26: 20:00

astelehena 27: 20:15



ANDRAMARI

ZORNOTZAKO IKASTOLA

IKASLEA, HEZKUNTZAREN ERDIGUNE

Ikaslea da protagonista nagusia Andramari Zornotzako Ikastolan. Haren ongizatea bilatzen dute uneoro, garapen integrala, osoa eta orekatua lantzea eta lortzea izanik helburua.

Ikastolako familiak eta langileak, helduak, haurren eta nerabeen bidelagunak dira eta, bakoitzaren erritmoa errespetatuz, 0 eta 18 urte bitarteko bidaia, heziketa, garatzen laguntzen diete. Ikasketa pedagogikoa, ikastolari lotuta dauden balore eta proiektu zinez berezi eta garrantzitsuak lotzen zaizkio, ikaslearen ibilbidea akademikoki ez ezik, sozialki ere aberatsa izan dadin.

HAZIA: HAURRAK BEREZKOAK DAKAR

Azken urteotan Haur Hezkuntzarako (0-6 urte) marko pedagogiko berria eta propioa sortzen buru-belarri aritu dira, eta Hazia proiektua sortu dute. Hazia proiektuan haurren erritmo biologiko-kognitiboak zainduz eta bere ongizate emozionalerako giroa bermatuz, haur bakoitzaren berezko gaitasunei hazten laguntzea dute egiteko nagusia. Pertsonaren oinarriak lehenengo sei urteetan errotzen direla jakinik, familiarekin batera lantzen dute bere garapen integrala, kontuan hartuz haurrari bere inizatibek eragiten diotela, bai ikaskuntzarako gogoia bai harremanetan sozializatzeko bidea. Horrela, haurrak bere kideekin eta helduekin bizitako esperientzien bidez eraikitzen du bere nortasuna eta autonomia, bizitza osorako beharrezko dituen oinarriak eskuratzeko. Ikastolak haurrari segurtasuna bermatzen dion testuingurua eskaintzen dio, bere ahalmenak sustatuz, ahalik eta gehien garatu ditzan.



KIMUA: UMEA GORA DATOR

Pertsonaren konpetentziak aldi honetan, sei eta bederati urte bitarteko adinetan garatzen dira, eta haur hezkuntzan hasitako garapen integralari jarraipena ematen dio ikastetxeak. Izan ere, logika eta arrazoiketa lantzeko adinean dago umea, ingurua behatuz eta ulertzeko nahiz adierazteko tresnak eskuratuz. Hori guztia zaintzen dute, umeak bere jakingurari eta esperientziei esker ikasten baitu, gizartean bizitzeko eta planteatzen zaizkion arazoei aurre egiteko.

EKIA: GAZTETXOA LAU HAIZETARA DOA

Gaztea bidegile eta hezitzailea bidaide. Konpetentzietan oinarrituz eta integrazioaren pedagogiaren bitartez, gaztearen gaitasunei etorkizunerako oinarri sendoak ematea dute eginkizun nagusia, norbanako, bizikide eta izaki moduan.

Pertsonaren ikasketa-ibilbidea eta lanerako prestakuntza bideratzen denez 9-16 urte bitarteko etapa horretan, jakintza akademikoaz harago bizitzarako konpetentziak eskaintzen dizkie, integrazioaren pedagogian ardaztuta, ikaskuntza kooperatiboa erabiliz, gaitasun digitalak garatuz eta ebaluazio hezigarriaren bitartez. Heziketa oso hori, gainera, euskal kulturaren oinarritzen dute.

PROIEKTUAK

Hizpro

Andramari Zornotzako ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntzari/irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdi guztiak bildu eta haien trataerari koherentzia emango dion egitasmoa da Hizkuntza Proiektua.

Bere hezkuntza -eta hizkuntza- proiektuaren ardatza euskara izanik, ikastolak euskaldun eleaniztunak trebatu nahi ditu. Hau da, bertako hizkuntza propioa (euskara) eta kontaktuko hizkuntzaz gain (kasu, gaztelania), atzerriko hizkuntza batean (ingeleza) ere nahikotasun maila lortzea nahi dute, bai eta laugarren hizkuntza bati buruzko (frantsesa) gutxieneko ezagutza barneratzeko aukera ere eskaintzea.

KiVa

2016tik aurrera, Andramari Zornotzako Ikastolak KiVa izeneko programa bat aplikatzen du eskola-jazarpenari (bullying edo berdinen arteko jazarpena ere esaten zaio) aurre egiteko. Programak jazarpenean alde edo moldez parte hartzen duten kide guztiak hartzen ditu kontuan: jazarleak eta biktimak, baina baita irakasleak, gurasoak eta, batez ere, taldeko gainerako ikasleak ere, pentsatuz egoera hori galarazteko zeregin garrantzitsua dutela.

Funtsezko alderdi bi ditu: alde batetik, prebentzioa, programaren helburu nagusia jazarpenari aurre hartzea eta halakoak murriztea delako; eta beste aldetik, gerta daitezkeen eskola-jazarpeneko kasuei heltzen die programak. Horretarako, KiVa talde bat dago ikastolan, etapa bakoitzeko irakasle batek eta hezkuntza-psikologoak osatua.

Hezkidetza

Hezkidetza da Ikastolak duen beste proiektu garrantzitsuenetarikoa bat. Beste proiektuek bezala, eguneroko garapena eskatzen du eta soilik horrela hartzen du zentzua: ekintza puntualez harago, egunerokoan hezurmamitzen da, etenik gabe.

Egoera horri aurre egiteko, testuinguru hezitzaileak askatasunez bizitzeko sorleku izan daitezen laguntzen die Ikastolak lantzen duen Hezkidetza Planak. Izan ere, hezkuntza-komunitatea garatzen den esparru guztietan eraldaketarako bideak eraiki nahi ditu planak.

Agenda 2030

Eskolako Agenda 2030 proiektuak Nazio Batuen Erakundeak bultzaturiko Agenda 2030 delakoaren testuinguruan kokatzen da. NBEk Garapen Iraunkorrerako Helburu berriak finkatu ditu, pobrezia amaiara emateko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen bizitza eta oparotasuna hobetzeko asmoz.



MATRIKULAZIOA ZABALIK

Urtarrilak 17tik 28ra arte

ATE IREKIAK

Urtarrilak 15

(0-6 urte arteko haurrentzat 10:00etan eta 12:00etan, eta 6-18 urte artekoentzat 11:00etan.)
Umeen zaintza ere eskainiko da

Izena emateko:



94 673 29 50 edo zornotza@ikastola.eus



“Bateraezinak baino, kontrakoak osagarriak direla esatera dator 'Antagonia'”

Erakusketa abendutik urtarrilaren amaierara arte ikusgai egongo da Durangoko Arteka liburu-dendan

ERAKUSKETA • ARITZ MALDONADO

Beste behin, Arteka liburu-denda Durangaldeko artisten erakusleio izan gura du. Kasu honetan, Itziar Bastarrika Madinabeitiaren eta June Baonza Pagaldairen lanak ikusi daitezke 'Antagonia' erakusketan.

Zer da 'Antagonia'?

Kontrako gisa identifikatzen ditugun kontzeptuak elkarreraginean ipiniz sortzen diren leku, gorputz eta mapak dira. Bateraezinak baino, kontrakoak osagarriak direla esatera datorren proposamen bisuala da *Antagonia*.

Beren-beregi Artekarako prestatu duzue erakusketa.

Bai. Maialenek proposamena egin zigun eta aukera aprobetxatu gura izan dugu beste behin ere elkarregaz lan egin eta sortzeko. Aurrez sorturiko argazki edo ilustrazio sorta bat ipintzea zen aukerarik errazena, baina gurago izan dugu guretzat erronka bat izango zen lan bat abiatu eta apur bat esperimentatu.

Zelakoa izan da sortze prozesua?

Proposamen honen lanketaren muina kontzeptualizazioa izan da. Hau izan da gehien kostatu zaiguna. Behin kontzeptua definituta, irudiak egitera pasatzea azkarrago eta errazago joan da, jolasteko unea izan da eta ondo pasatu dugu.

Erakusketa iradokitzailea edo probokatzaila dela iruditu zait. Horixe zen helburua?

Gure helburua momentu batean ere ez da izan probokatzea. Guk ez dugu gure irudietan probokazioa dagoenik ikusten. Lanaren aurrean kokatzen denak ez ditu erantzunak jasoko, galderak sortuko zaizkio seguruenik. Beraz, iradokitzailea badela esango genuke. Baina irudien atzean dagoen mezua ikusle bakoitzak sortzen duena da.

Argazkiez gainera, serigrafiak ere ikusi eta erosi daitezke erakusketan.

Sormen proiektu desberdinak partekatzen ditugu eta horietariko bat Birak_Orbita da. Proiektu honetarako sortu ditugun di-

seinuak serigrafiatuta dituzten kamiseta, poltsa eta zorroak eskuragarri daude. Baina hori ez da dena, laminak eta grabatuak ere ikusi eta erosi daitezke.

Lanaren aurrean kokatzen denak ez ditu erantzunak jasoko, galderak sortuko zaizkio

Baduzue beste proiekturik esku artean?

Burua ideiaz beteta dugu, baina orain denbora da falta zaiguna! Dena dela, ideiak badaudenez, proiektu berrietan murgiltzea epe ertaineko kontua izango da...



Aurreko saio bateko argazkia.

Urteko Azken Bertso Saioa egingo dute San Agustinen, abenduaren 30ean

BERTSOLARITZA • J.G.

Berbaro Elkarteak Urteko Azken Bertso Saioa antolatu du, abenduaren 30erako, 20:00etan. Aurten San Agustin kultur gunean izango da, urtero saioa hartu duen Plateruena itxita dagoelako.

Igor Elortza, Maialen Lujanbio, Miren Amuriza, Miren Artetxe, Julio Soto eta Aitor Bizkarra arituko dira bertsoan. Unai Iturriaga arituko da gai-jartzaile lanetan. Sarrerak Berbaro elkartearen bulegoan daude salgai (Laubideta kalea 6C), 12

euroko prezioan sarrera arrunta eta bazkideek 8 eurotan.

Bizkaiko finala

Bizkaiko Bertsolari txapelketako finalean parte hartu zuen Aitor Bizkarra abadiñarrak seigarren sailkatu zen. Gorka Pagonabarraga durangarra seigarren gelditu zen. Nerea Ibarzabalek irabazi zuen, Jone Uriagaz buruz-burukoan abestuta.

GAER  **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

 **Seguros Bilbao**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

“Osasun krisialdiak funtzionatzeko moduan eragin digu batez ere”

Rock doinuak dira Astoturferren bost kantako 'Atxiperre' lan laburraren ardatza; aurkezpena Ahotsenean egin eta gero, durangarrak gogotsu daude zuzenekoak eskaintzeko

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Jon Abarzuzak (bateria), Jon Azkuenagak (gitarra), Alex Otxoa de Aspuruk (saxoa eta koroak), Aner Garitaonaindiak (gitarra eta koroak) eta Alberto Gallegok (baxua eta ahotsa) ondo pasatzeko eta rockagaz disfrutatzen jarraitzeko asmoagaz sortu zuten Astoturfer, 2017an. 2021ean 'Atxiperre' kaleratu dute; Gorka Bidaurrazagagaz grabatu dute, Pott produkzioak estudioetan. Taldekideak ezagunak dira rock giroetan, izan ere, Yoko Out, Martxoak 31, eta Amama Luisa Brass Band taldeetan ibilitakoak dira.

Zelan sortu zenuten Astoturfer?

2016an Jon Abarzuza bateria jotzen ikasten hasi zenean, argi zuen bere ametsa eta helburua talde batean jotzea zirela. Rock Izar musika eskolan hasi zen eta han Aner ikusi zuen, gitarragaz. 'Hemendik urtebetera elkarregaz jotzeko deituko dizut', esan zion. Esan eta egin. San Faustoetan, Jonek Alberto ikusi zuen Antonio's taberna parean, eta

elkarregaz jotzeko proposamena egin zion; urte batzuk jo barik egon arren, segituan eman zion baiezkoa. Gero, Jon Azkuenaga batu zen. Azkenik, Alex tentatu zuten Rincon tabernan, eta hala sortu zen taldea.

Zerk motibatu zaituzte Astoturfer sortzera?

Ondo pasatu eta musikagaz disfrutatzeke asmoagaz elkartu ginen.

Zein sentazio geratu zaizue 'Atxiperre'-k izan duen harreragaz?

Entzun ditugun kritikak baikorrak izan dira, baina gehienak lagunek eta familiakoenak izan dira.

USBan grabatu duzue, formatu berezi batez. Zergaitik?

Musika digitaletik aparte formatu-rik erabiliena delako, eta Azokan zeozer fisikoa aurkezteko beharragaitik ere bai.

Zelan joan zen Ahotseneako kontzertua?

Itzel! Plateruena altxor bat da, galtzen utzi ezin duguna. Etxean jo genuen, etxekoentzat, eta, gai-



Plateruena altxor bat da, galtzen utzi ezin duguna. Etxean jo genuen, etxekoentzat, sekulako ekipo eta teknikariek

nera, sekulako ekipo eta teknikariek.

Eragin dizue osasun krisialdiak konposatzerakoan?

Gatz da horri erantzutea. Hasi ginenetik zazpi abesti sortu ditugu, eta hainbat bertzio landu. Zazpi horietatik bost aukeratu genituen

grabaziorako. Gure sortze prozedura motela da. Osasun krisialdiari dagokionez, nori ez dio eragin? Musikan edo letretan baino gehiago, taldearen funtzionamenduan eragin du. Entseatzeko arazoak, bolorik ez... Beharbada, horrek bulztatu gaitu grabatzera.

Gai librean

Erreplikatu

Profezia guztiek diote gizakiak bere suntsiketa sortuko duela, baina mendeek eta beti berritzen den bizitzak maitale eta ameslari belaunaldi bat ere sortu zuten; mundua suntsitzearekin amets egin ez zuten gizon eta emakumeak, tximeleten eta urretxindorren mundua eraikitzearekin amesten zutenak. Gioconda Belli nikaraguarren hitzak horiek, magiaren kontinentean idatziak behinola.

Ozeanoaz bestaldeko albisteek gozatu digute, urte samin hau amaitu aurretik ozta-ozta, goizero mendebaldean zerbitzatzen den azukre gabeko kafe garratza: ezkerre gailendu zaio eskuin muturrari Txileko hauteskundeetan. Lepo bete dira hiribideak, eta milaka eztarrak batera abestu dute. «Gorri da ekiaren goiza, igarri du



Libe Mimentza
Castillo
Kazetaria

Ozeanoaz bestaldeko albisteek gozatu digute, urte samin hau amaitu aurretik ozta-ozta

Abiapuntu berri bat da istorio bakoitza. Erabaki bakoitza. Arrakala bakoitza. Aldaketa bakoitza

datorren bizitza. Zutik, altxa, herria aurrera. Hobe da iritsiko dena!». Duela 48 urte indarrez ezarritako neoliberalismo basati eta biolento hau arrakalatu daitekeela dioskue, ireki direla berriz ere pasabideak, jende librea pasatzeko, jendarte hobe eraikitzeko.

Historia erreplikatu egiten dela diote maiz, eta gezurra dela esatea ahazten dute.

Aldaerak ez baitira berdinak.

Abiapuntu berri bat da istorio bakoitza. Erabaki bakoitza. Arrakala bakoitza. Aldaketa bakoitza.

Argiak bide egiten duen garaia da neguko solstiziotik aurrerakoa. Igaro da egunik motzena. Hemen da desira partikularrez osatutako biharamuna. Esperantza izpi bat albistegietan. Aurki gaitzala argiak koilarak erreplikarako prest.

Ibaizabal eskubaloi taldeak emakumezkoen talde bi ditu senior mailan, klubaren historian lehenengoz

Denboraldi honetan, senior mailan Euskadiko ligara igotzea dute helburu Ibaizabal eskubaloi klubeko talde biek: talde gorriak eta talde urdinak



Ibaizabal taldeko kideak.

ESKUBALOIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ibaizabal eskubaloi taldea historia egiten dabil eta taldeko kideek historia egiten jarraitzeko helburua dute. Klubaren ibilbide osoan zehar, lehenengoz emakumezkoen talde bi daude senior mailan liga berean jokatzeko. "Aurten hainbat jokalarik igo da jubentilatik senior mailara. Orduan, senior mailan 20 bat jokalarik geundela ikusi genuen, eta talde bi sortzeko apustua egin genuen. Alde batetik, iazko senior taldea mantentzea erabaki genuen, eta, bestetik, jubentilatik igotakoekin talde berria sortzea", azaldu du Nerea Oliver talde urdineko kapitainak. Horrela, klubaren historian lehenengoz, Ibaizabaleko kideak talde bigaz kantxaratu dira aurten, talde urdinagaz eta talde gorriagaz.

Dagoeneko Ibaizabal eskubaloi taldekoak denboraldiaren erdira heldu dira eta lehenengo zatiaren "balorazio positiboa" egiten dute. "Taldea bati besteari baino hobeto doakio, partiduak hobeto ateratzen ari zaizkio. Hala ere, denboraldiaren bigarren zatia potentzia izango den irudipena daukat.

"Iazko senior taldea mantentzea erabaki genuen eta jubentilatik igotakoekin talde berria sortzea"

Ibaizabal eskubaloi taldeko kideek denboraldi hasieraren "balorazio positiboa" egiten dute

Ikusten da liga osoan ez dagoela erregularitasun handirik, eta, beraz, edozer gertatu daitekeela uste dut", jarraitu du Oliverrek.

Kapitainaren berbetan, aurten denboraldia hainbat arrazoiengaitik dabil "zaila" izaten, baina, batez ere, pandemiagaitik. "Denboraldia zaila izaten ari da, baina talde guztientzat. Protokoloak jarraitu behar dugu eta protokoloak gure egunerokotasuna guztiz moldatzea ekarri du. Hala ere, zailtasunak zailtasun, gure urteko helburua lortzeko lanean gabilta", aitortu du Oliverrek.

Euskadi mailara

Talde biek helburu argi bat dute datorren denboraldirako, senior mailan Euskadiko ligan jokatzeko. "Klubaren asmoa talde bietariko bat behintzat datorren denboraldian Euskadiko ligan jokatzeko egotea da, eta aurten hori lortu daitekeela uste dut. Nire ustez, helburua bete daiteke eta hori lortzeko borrokatuko gara. Aukerak badaude, talde biek aukerak ditugu, eta, beraz hori lortzeko gogor lan egingo dugu", azaldu du Oliverrek.

"Ibaizabal eskubaloi taldearentzat senior mailan talde bi izatea oso garrantzitsua da"

Eskubaloia indarra hartzen

Ibaizabal taldea garai loriatsua bizitzen dabil eta hori oso garrantzitsua da, bai klubarentzat eta baita herriarentzat ere. "Klubarentzat senior mailan talde bi izatea oso garrantzitsua da. Azken batean, horrelako kirol batean horrenbeste jende izatea ez da erraza. Gainera, kanpora begira, eta herrira begira ere, oso inportantea da. Gaztetxoek hainbat talde ikusten badituzte, denentzat lekua dagoela ikusten dute. Beraz, hori oso positiboa da denentzat", jarraitu du kapitainak.

Bestalde, eskubaloia apurka-apurka herriko eskoletan eta eskola kirolean txertatzen joatearen garrantzia azpimarratu du Ibaizabal taldeko kideak.

Lidia Cañete eta Elisabeth Luengo Euskadiko txapelkun eta azpitxapelkun arku-tiroan

Uztailean lehiaturiko aire libreko txapelketako emaitzak errepikatu dituzte indoor-ean ere

ARKU-TIROA • JOSEBA DERTEANO

Lidia Cañete eta Elisabeth Luengo durangarrek ez dute parekorik arku kurbatuaren modalitatean. Euskadiko bi arkularirik onenak dira emakumeetan. Cañete maila absolutuko Euskadiko txapelketa da, bai aire librean eta baita indoor-ean ere. Aire libreko txapela uztailean irabazi zuen, Trapagaranen, eta indoor-ekoa joan zen zapatuan, Amurrión. Txapelketa bietan

Luengo geratu da Euskadiko azpitxapelkun.

Bizkaian emakumeak eta gizonak batera aritu dira txapelketa ofizial batean, lehenengoz

Bizkaikoan, gizonekin

Abenduan, Cañetek Bizkaiko txapelketan ere parte hartu du

eta podiumera igo da, hirugarren postuan. Baina emaitzaren gainetik beste zerbait nabarmendu gura izan du durangarrak: gizonak eta emakumeak batera aritu direla. Txapelketa ofizial batean hori gertatzen den lehenengo aldia da. Aurrerantzean, emakumeetan lau arkulari baino gutxiago badaude, gizonekin batera arituko dira. Hain zuzen ere, horixe gertatu da aurten, emakumezko hirugarren arkulari baino ez zeuden eta.



Ezkerrean Elisabeth Luengo eta erdian Lidia Cañete Amurrioko podiumean.



Zuzendaritza berriko kideak DRTren egoitzan, prentsaren aurreko agerraldian.

Durango Rugby Taldeko zuzendaritza berria jendaurrean aurkeztu dute

"Lehentausna DRT aurrera ateratzea izango da; kluba altxatu behar dugu", azaldu dute

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Legegintzaldi honetan Durango Rugby Taldearen gidaritza eramango duen zuzendaritza taldea aurkeztu dute prentsaurreko batean. José Ignacio Azurmendi da presidente berria eta Jon Elguezabal, Txarli Ruiz, Gontzal Uribe, Kristina Atutxa, Iker Mendieta, 'Poti' Sánchez, Iñaki Gallastegi eta Imanol Azurmendi izango dira zuzendaritza batzordeko kideak.

"Zuzendaritza presidentzialista izatetik urrun, pertsonen alde lanean jarraituko dugu eta beste behin ere batzorde autonomoetan

oinarrituta egingo dugu", ziurtatu du José Ignacio Azurmendik. Horrela, Euskara Batzordea eta Berdintasun Batzordea klubaren

"Ekonomikoki borrokan jarraituko dugu egungo egoerari aurre egiteko", azaldu zuten

antolakunde osoaren zeharkakoa izango dira, besteak beste. Bestalde, Aratz Gallastegik kirol zuzendari lanetan jarraituko du.

Zuzendaritza berriaren erronkei eta helburuei dagokienez, "lehentausna DRT aurrera ateratzea izango da; kluba zelan edo halan altxatu behar dugu, eta, horretarako, urrats batzuk eman ditugu. Lehenengoa eman dugu, zuzendaritza bat eta lantalde bat prest egotea lanean jarraitzeko DRTren etorkizunaren alde, uztailean ez zegoena, eta bigarrena Rugby Taberna berriro zabaltzea. Ekonomikoki borrokan jarraitu behar dugu egungo egoerari aurre egiteko, eta hainbat kirol eta gizarte jarduerak buruan", azaldu zuten.

Zornotza STk zilarrezko mailako lidertzan amaituko du urtea

Aurkari askok baino aurrekontu txikiagoa badu ere, aurten ere sekulako denboraldia osatzen dabil

SASKIBALOA • J.D.

Urtea joan eta urtea etorri 19.000 biztanle dituen herri bateko saskibaloia klub bat Urrezko Ligara igotzeko borrokan ikusteak logikoaren kontrako zerbait dirudi, baina Zornotza Saskibaloia Taldeak horrelaxe ohituta ditu bere zaleak. Aurten ere sekulako denboraldia osatzen dabil. Zilarrezko Ligako liderrak dira eta postu horretan amaituko dute urtea. Hamar partidutan bakarria galdu

Martxa honetan jarraituz gero, klub zornotzarrak Errege Kopara sailkatzeko aukera du

dute eta gainerakoak garaipenak izan dira Mikel Garitaonandiak zuzenduriko taldearentzat. Ligako martxa onagaz jarraituz gero, Errege Kopara sailkatzeko aukera dute gainera.



Asteazkenean Basket Navarra taldearen kontra jokatuko dute urteko azken partidua.

Jokaldia

Euskal Selekzioaren etorkizuna kolokan

10 egun joan dira ezusteko ohar hura sare sozialetan ikusi nuenetik eta oraindik gaia pil-pilean dago. Pare bat urte daramatzat Euskal Selekziotik kanpora lehiatzen, baina beti mantendu izan dut oso harreman estua bertako kideekin, eta azkenengo hiletan zerbait entzunda neukan zuzendaritza berriarekin izandako gorabeherei buruz. Banekien komunikabide arloa zeramatzen kide biak kanporatu egin zituztela, esaterako. Banekien zuzendaritza berria ez zegoela ados egungo hautatzaileekin hainbat arlotan, eta hori dela-eta hautatzaileetariko batek bere kabuz taldea uzteko erabakia hartu zuela. Eta banekien datorren urtera begira, oraindik karguan jarraitzen zuten hautatzaileek gogoia zeukatela taldearekin aurrera



Oihana Azkorbebeitia Urizar

Mendiko korrikalaria

"20 urtean geurea izan den Euskal Selekzioa hile gutxi batzuetan zakutik hartzera bidali dute eta berdin izan zaie"

"Nik ere korrikalarietan bat egiten dut eta uko egingo diot egungo Euskal Selekzioarekin lehiatzeari"

egiteko, eta, horretarako, zuzendaritzari euren proiektua helarazi nahi ziotela.

Baina azkenean ez da posible izan. 2022ko denboraldiari begira, zuzendaritza berriak eta hautatzaileek batzar bat izan zuten, baina, 'egun on' esan orduko, kanporatu egingo zituztela esan zieten biei, eurekin "feeling"-ik ez zegoela eta".

Hortxe amaitu zen dena. Astebete ge-roago, zuzendaritza berrikoek azalpen gutxi batzuk eman zituzten euren web orrian: Euskal Selekzioak "talde zabala goa eta gardenagoa" izan behar duela. Bada, orain arteko selekzioa baino talde zabal eta gardenagorik! Korrikalariak hautatzeko irizpideak ere eman zituzten. Baina gauza berririk ez, orain arte ere antzeko irizpideak jarraitu izan dira eta.

Oraindik inork ere ez du ulertzen zuzendaritza berriak zer asmo duen aurrera begira. 20 urtean geurea izan den Euskal Selekzioa hile gutxi batzuetan zakutik hartzera bidali dute eta berdin izan zaie. Aldaketak egitea ez da inoiz ere izan txarra, baina denen artean erabaki behar dira aldaketak. Gauzak horrela, nik ere selekzioko korrikalarietan bat egiten dut eta uko egingo diot egungo Euskal Selekzioarekin lehiatzeari.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



ABADIÑO
ABADIÑO: Etxebizitza. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Terraza. Lokal komertziala. Garajea eta txokoa. 300 m-ko lorategia.
415.000 €



MATIENA
3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. Igogailua. Berriztatua.
149.000 € C.E.E=F



ABADIÑO
VENDE
94 681 40 49
LURSAILA: Partzela 1.000 m2-ko lursail eraikigarrian
180.000 €



DURANGO
Etxebizitza altua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Aparkaleku pribatua.
85.000 € C.E.E=G



DURANGO
JESUITAK: Berriztatua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.
199.500 € C.E.E=G



DURANGO
ALDE ZAHARRA: 2 logela (lehen 3) komuna, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara. GUZTIZ BERRIZTATUA. Bizitzera sartzeko moduan.
145.000 € C.E.E= E

// ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.
DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

MAÑARIA
KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI
GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria
ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m2-ko lur saila. Berriztatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuzeko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO
30 m2-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIRUAN
BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m2-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



IURRETA
70 m²
3 logela
BIDEBARRIETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Erdialdetik gertu. ITE-a 2018.urtean pasatutakoa.
159.000 € C.E.E: E negoziagarria



DURANGO
52 m²
ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. Herrigunetik oso gertu. Instalazio elektrikoa eta iturgintzakoa berri-berriak. ITE oraintsu pasatutakoa. Igogailua.
155.000 € C.E.E: E



MATIENA
65 m²
3 logela
TRAÑABARREN: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (Mendebaldea). ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. 8 m2-ko ganbara. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.
175.000 € C.E.E: E negoziagarria



DURANGO
103,6 m²
MONTEVIDEO: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, eskegitokia eta 2 komun. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Garaje bikoitz itxia barne. Ezin hobea. Igogailua.
334.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO
82 m²
3 logela
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. (Iparralde) Leku onean kokatua. Garaje partzelarako aukera + 10.000 euro, etxebizitzatik bost minutura. Aukera asko. Igogailua.
195.000€ C.E.E: E



DURANGO
74 m²
ARAMOTZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela (lehen 4), komuna eta despentsa Balkoia. ERDI BERRIZTUA. Etxe osoak kanpora ematen du. (Iparralde). Berdeguneetatik hurbil eta herriko sarrera-irteera baten ondoan. Igogailua ipini behar dute (diruz lagundutako zaharberitze proiektua) Bizitzera sartzeko moduan.
120.000 € C.E.E:G

//DURANGO
ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua.
LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bulegoa. **220.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **112.000 € / E.E.Z= E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**

Goienkalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € / E.E.Z= G**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

ATXONDO
ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

IURRETA
OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

IZURTZA
ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

MATIENA
TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**


OTXANDIO
ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

ZALDIBAR
MIREN MAORTUA: 3 pisuko etxea. 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 3 komun. Terraza. Lorategia eta txokoa. Garajea eta trastelekua. **525.000 € / E.E.Z=E**

ALOKAGAI
Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

GARAJEAK SALGAI
Durangon eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

BERRIAK - ABADIÑO
ALFREDO BAESCHLIN: Etxebizitza eraikitzeke lurzorua. **180.000 €**



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**.

Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Domekan 20 urte eingo dozuz. Zorionak, **Aitor!** Hau atzoko argazki bat da.



Zorionak, **Ninbe!** Egun zorionsua pasa dezazula, asko maite zaitugu!

Botikak

BARIKUA, 24 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 25 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 26 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 27 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 28 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 29 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 30 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 14° / 8° ☁

DOMEKA ↓ 13° / 8° ☁

ASTELEHENA ↓ 13° / 7° ☁

MARTITZENA ↓ 11° / 8° ☁

EGUAZTENA ↓ 13° / 7° ☁

EGUENA ↓ 11° / 8° ☁

HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA

'YOGIPUINAK' MAITE ARRESEREKIN

Sarrera gonbidapenarekin

URTARRILAK 4

11:00 3-5 urte
12:00 6 urtetik gora

MAITE ARRESE
YOGIPUINAK

“Asko gustatu zait reality baten barruan egotea, guztia zelan egiten den ikustea”

Naiara Carreto durangarrak 12 kaletar eta 12 baserriar batu dituen 'Baserria' realityan parte hartu du; "esperientzia berri bat bizitzeko irrikan" animatu zen parte hartzera



Naiara Carreto Graña
Baserria telebista saioan parte hartu du
DURANGO | 1985

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Naiara Carretok hainbat plan zuen betetzeko: bidaiak, proiektuak... Baina, pandemiaren eraginez, denak etenda geratu ziren. 'Baserria' realityan parte hartzeko aukerak bide berri bat zabaldu zion: "Kokoteraino nengoen etxean egoteaz, eguneroko monotoniak espiritua zapuztuta, eta esperientzia berri bat bizitzeko aukera nuen", dio. Pentsatu barik eman zuen izena. Youtubean makillaje eta moda gomendioak ematen ditu: 'Naiara Always Happy'.

Zelako esperientzia izan da 'Baserria'-n parte hartzea? Errepikatuko zenuke?

Sekulako esperientzia izan da. Oso gogorra izan da emozionalki

momentu askotan, baina oso polita ere bai. Bizi izandako pasarteak eta bertan ezagutu dudana jendea betiko gordeko ditut bihotzean. Ez nuke berdina errepikatuko, ez litzatekeelako berdina izango inoiz. Baina beste telebista saio batean bai.

Baduzu momenturik bereziki gogoa?

Adituek erabakita, bigarren saioan immunitatea jaso nuen eta oso harro sentitu nintzen. Orduan konaturatu nintzen 'Baserria'-n parte hartzea ez zela niretzat bakarrik esperientzia desberdina, familiak eta lagunak ere ikusiko zutelako. Bestalde, ezin ditut ahaztu grabatu barik geratu diren momentu asko. Talde ederra batu ginen baserrian.

Kirolaririk trebeena ez naizen arren sufritzea gustatzen zait. Dena ematea izan da nire helburua

Bereziki prestatu zara 'Baserria'-n parte hartzeko? Irabazle ikusten zenuen zeure burua?

Ez nintzen batere prestatu. Kirola egiten dut, bai. Eta kirolaririk trebeena ez naizen arren, sufritzea gustatzen zait. Dena ematea izan da nire helburua, eta horixe egin dut proba guztietan. Irabaziz gero, hobeto.

Kamera aurrean itsusi irteteari beldur zeniola esan duzu. Telebistan azaldu-tako irudia bat dator eman gura izan duzun irudiagaz?

Nori gustatzen zaio, ba, itsusi ikustea? (barrez). Lehenengo saio bietan oso itsusi ikusi nuen neure burua, ez dut gezurrik esango. Baina hori baztertu eta kamera aurrean erakutsitakoagaz geratzen naiz.

'Naiara Always Happy' izenpean youtube kanala duzu. Zein da beti zoriontsu egoteko sekretua?

Ez dago. Zoriona ez dator bat-batean, landu beharreko sentimendua da. Normalean poza ematen didaten gauzeekin geratzen naiz eta besteak ahazten ahalegintzen naiz. Bizitzan denerik dago, eta ezer ematen ez dizuna hobeto baztertu, ez du ezertarako balio eta. Osasun mentala lantzea oso garrantzitsua da, eta uste dut alde batera utzi dugula. Ezin gara gauza onak noiz etorriko zain egon, norberak sortu eta landu behar ditu. Hori dut bizi filosofia.

Asko gustatu zait reality baten barruan egotea, guztia zelan egiten den ikustea. Kameraren atzean dagoen talde osoa izugarria izan da

Egunero kirola egiten duzu eta zeure buruari erronkak ipintzea gustatzen zaizu. Zein da zure hurrengo erronka?

Orain crossfit-a, dantza eta inoiz kickboxing-a egiten ditut, baina ez dut baztertzen beste zerbaite berria hastea; asko gustatzen zait gauza berriak egitea. Adibidez, urari beldurra kentzea gustatuko litzaidake. Ez dut inoiz uretako kirolik egin, beldurragaitik batez ere. Halako erronka bat egingo nuke, bai.

Reality zalea zara?

Ez asko. Ez ditut asko ikusi eta ikusitakoak lagunekin berba egiteko ikusi ditut, batez ere. Dena dela, asko gustatu zait reality baten barruan egotea, guztia zelan egiten den ikustea. Kameraren atzean dagoen talde osoa izugarria izan da gugaz, eta hori ere eskertzekoa da.

Lauhortza

Ibai Zabala Gandarias Pilorari ohia



Zentzora

Durangoko Azoka, bai eskualdeko herritar, bai euskaltzale gisa, beti hurbiletik jarraitu dudana zerbaite da. Kultur produkzio askori arnas goxoa ematen dien ekitaldia da, hala erakusten du urtez urte; eta gure hizkuntzak momentu honetan zerbaite behar badu, hori kultur sorkuntza bultzatzea da. Hala ere, azoka bera gure gabezien isla ere badela esango nuke.

Saltoki-gune handien mesedetan gure herriko kaleak denda txikiz husten ari garen garaioan, kultur kontsumoarekin ere antzeko fenomeno gertatzen ari da. Abenduko lehen astea heltzen denean, denok gara kultur kontsumitzaile: Durangoko Azoka jendez betetzen da, Ahotseneako saio guztietan sarrerak amaitzen dira eta sare sozialak liburu eta diskodun argazkiz josita ikus daitezke. Bertso txapelketen garaia heltzen denean ere, gertakari bera: sarrerak agortuta, etxean ETB4 telebistan eta sare sozialak sutan. ETB4!

Horrek guztiak irribarre bat sortzen didala aitortu behar dut, baina, nire ustez, ezin dugu gure kulturaren biziraupena urtean behineko momentuko astinduen menpe utzi. Alegia, bertso finala bai, baina herriko bertso saioa ere bai; Durangoko Azoka bai, baina etxe azpiko liburu-denda ere bai. Badakit argazkiaren edo postalaren garaian bizi garela, baina, kulturari dagokionez, ez gaitezen joko horretan eror, mesedez. Saioa Alkaiza Guallarrek bazterrera hurbilduz mundua ederragoa dela esan zuen, eta hala darrai aurrera euskal kulturak ere, bazterreko edo periferiako bizitza eder horretan. Baina zer iruditzen zentzora badakargu?

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa